



## MARTXOAREN 8a, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA 8 DE MARZO, DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES

Urtero bezala, garrantzitsua da martxoaren 8a Emakumeen Eskubideen Defentsaren eguna izatea.

Emakundek martxoaren 8rako egiten dituen kanpainetan, gizarte moduan hainbat gairi buruz galdetzen zaigu: neskek eta emakumeek jasaten duten presio handia, oro har, beren gorputzen "perfekzioari", ezarritako edertasun-kanon zorrotzari eta beren gorputzen hipersexualizazioari eta kontzeptualizazioari dagokienez.

"Zuetaz harro" 2024ko kanpainan, ahaldundutako emakume bakoitzaren atzean ahalduntzera bultzatu duen beste emakume bat egon dela" gogorarazten digu, emakume adinduek gazteen ahalduntzean egindako ekarpena goraipatzen du, belaunaldien arteko harremanaren garrantzia bereziki azpimarratuz.

Garaiz gaude, eskola bezala eta Hezkuntza Sistema bezala, gure ikasleei beren trebetasun pertsonalak eta sozialak garatzen lagunduko dieten tresnak eskaintzeko, eguneroko presioen aurrean askatasunez jardun ahal izan dezaten. Horretarako, *II. Hezkidetza Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean* hezkidetzaren oinarriko ideiak jasotzen dira, eta **Hezkidetzagune** zuen eskura jartzen ari gara, ikasgelan landu ditzazuen. Horien artean dago *sexismoaren aurkako pentsamendu kritikoa* zutabea, genero-azterketatik ikuspegi kritikoa dugunean soilik antzeman ditzakegulako desberdintasunak.

Estereotipoz betetako gizarte batean pentsamendu kritikoa duten ikasleak behar ditugu, eta horretarako, egunero lan egin behar dugu ikastetxeetan, ez bakarrik martxoaren 8an.

Horregatik guztiagatik, esteka horretan eskura duzuen material didaktikoa erabiltzera animatzen zaituztegu.

Zuen laguntza izango dugulakoan,

Adeitasunez,

Como cada año, es importante celebrar el 8 de marzo como el día de la Defensa de los Derechos de las Mujeres.

En las sucesivas campañas que Emakunde realiza para el 8 de marzo, se nos interpela como sociedad sobre diversos temas: la gran presión de la que son objeto las chicas y las mujeres, en general, en relación a la obligatoriedad respecto a la "perfección" de sus cuerpos, al exigente canon de belleza establecido, así como a la hipersexualización y conceptualización cada vez más mercantil de sus cuerpos.

Este 2024, en su campaña "Orgullosas", nos recuerda que detrás de una mujer empoderada, ha habido otra mujer impulsándola a serlo, ensalza la aportación de las mujeres mayores en el empoderamiento de las más jóvenes, poniendo especial énfasis en la importancia de la relación intergeneracional.

En ese sentido, como escuela, como sistema educativo, estamos a tiempo de ofrecer a nuestro alumnado herramientas que les ayuden a desarrollar sus habilidades personales y sociales para que puedan actuar con libertad frente a las presiones a las que se enfrentan en el día a día. Para ello, en el *II. Plan de Coeducación, en el camino hacia la igualdad y el buen trato* se recogen los pilares básicos de la coeducación, que estamos poniendo a vuestra disposición en **Hezkidetzagune** para que podáis trabajarlos en el aula. Entre ellos se encuentra el pilar *Pensamiento crítico frente al sexismo* porque solo cuando tenemos un enfoque crítico desde el análisis de género podemos reconocer las desigualdades.

Necesitamos estudiantes con pensamiento crítico en una sociedad llena de estereotipos y para ello, debemos trabajar día a día en los centros educativos, no solo el 8 de marzo.

Por todo ello, os animamos a que utilizéis el material didáctico que está a vuestra disposición en dicho enlace.

Contando con vuestra colaboración,

Atentamente,

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 4a

Jokin Bildarratz Sorron  
Hezkuntzako sailburua / Consejero de Educación